

Noaia

www.noaia.com



Gabonetako ekitaldiak,
gehigarri berezian bilduak



Diseinu munduan
bidea zabaldu nahian

Usurbilgo Kinkildegian
topatzen zenufena,
hemen Olatzen dendan
topatuko dezute



Kinkildegia

Catalina Erauso 11, atzekaldea
DONOSTIA (Amaro Berri)
943 47 23 28

Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

Gabonetako berezitasunak
eta otarrak prezio ezin hobean



Harategiko berezitasunak

Txahal azpizuna
Behi azpizuna
Esneko arkumea
Txerrikumea
Antxumea
Kapoia
Pularda, ehiza,
rosbeef, entrekota (1kg)...

Urdaitegiko berezitasunak

Foie frexkoa
Tè eta Jengibre dum foie
Ahate konfita,
Mikuit
Txatka naturala
izozkina
Bieira beta
Budinak...

Fruta denda berezitasunak

Ananak
Gaztainak
Mahatsa
Orejoiak
Kiwiak
Bertako barazkiak
Fruten selekzio paregabea



Albiste iruditan !!

Elkartasuna ari du, gogotik gainera

Egunkaria itxi eta handik hilabete batzuetara edo, Lorea Agirre kazetariak itxieraren kronika jaso zuen liburu eder batean. "Gezurra ari du" izenburu poetikoarekin, ondo baino hobeto laburbildu zuen inoiz hasi behar ez zuen auzia. Gezurra ari zuen orduan. Frogarik ez zuten aurkitu gero, baina epaiketara iritsi da zazpi urtez luzatu den amesgaiztoa.

Kosta egiten da Joan Mari Torrealdai euskaltzaina, Txema Auzmendi jesuita eta beste hiru kideak Audientzia Nazionaleko akusatuen aulkian eserita irudikatzea. Hamaika ikusteko jaio ginela dio esatera zaharrak, egia izango da. Eskerrak hainbeste gezur artean, elkartasuna ere gogotik ari duen.



AKTOREAK ETA ZINE MUNDUKO KIDEAK, ZINEMALDIAN EGIN ZEN ELKARRETARATZEAN.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

TENTSIOZ BETERIKO ONGI ETORRIA _____ **5. OR.**

EZKER ABERTZALEAREN BATZARRA _____ **6. OR.**

EGUNKARIKOEN ALDEKO EKITALDIA _____ **7. OR.**

MENDEKU ITXUA, ONENEN PARE _____ **8. OR.**

LORE ETA IKATZ, AUZOZ AUZO _____ **9. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

Kartzelako gaia

Gai-jartzaileak azken hiru bertso osatzeko kartzelako gaia irakurri du: "Mundua kartzela ote al da?". Bertsolariak, papera eskuetan daramala, mikrofonora hurbildu eta Mikel Laboaren "Txoria txori" doinuan dagozkion hiru bertsoak osatuko ditu.

Lehenengo bertsoan, bere hitza eta ahotsaren bidez konpromiso sozialaren alde aritzen diren abeslariak miresten dituela dio bertsolariak. Horregatik, Víctor Jara kantautorea eredu izan du. "Nik ez dut abesten nola edo hala... gitarrak bihotza daukalako abesten dut" kantatzen zuen abeslari txiletarrak. 1973. urtean Pinocheten kolpe militarren menpean, Víctor Jara bahitu zuten eta beste milaka txiletarrekin batera, Santiagoko futbol estadiora eramane zuten. Estadioan basaki torturatu eta gero, hil zuten. Bertsolariak, Jara bakar-dadean lurperatu zutela errimaz argitzen du. Hilabete honetan, 36 urte igaro eta gero, abeslariaren gorpua hobitik atera eta milaka txiletarrek hiru egunetan zehar, Jarak merezitako hileta eta omenaldia eskaintzeko parada izan dute... Agur eta ohore:

- "(...) atzo, gaur, beti... diraute zure abestik".

Bigarren bertsoan, Aminetu Haidar gogora ekartzen duenean, mikrofono aurrean dagoen bertsolariaren ideiak hitzetik hortzera azaltzen dira. Kementsu ahoskatzen ditu erri-

mak eta kontrajarritako sentimenduak nahasten ditu: alde batetik emakume sahararraren bere herriaren askatasunaren aldeko borrokak iradokitzen dion arraitasuna, beste aldetik Aminetuk Marokoko ezkutuetao kartzelatan lau urteetan zehar jasan dituen torturak eta hauen ondorioz gaixotasun fisikoak dakarten negargura. Alde batetik, Espainiako agintari politikoen faltsukeria, itxurakeria, ustelkeria. Beste aldetik, Aminetu Haidarren duintasuna, tinkotasuna, trebetasuna; pertsona ausarta, argia, lokabea. Bizitzaren trukatzailak bizitzaren maitalearen aurrean. Baina, justizia noiz bihurtuko ote da egia?...

- "(...) egiak bide bakarra zeharkatzen du".

Egunkariaren langileen izenekin osatzen du hirugarren eta azken bertsoa. Hizkuntza kultura bada, euskalgintza kultur-gintza da; herrian txertatzen den kultur-gintza. Euskaraz abesten dute, euskaraz idazten dut, euskaraz borrokatzen duzue, euskaraz amesten dugu, euskaraz hazita gara...

- "(...) euskara ez da kabi batean bahitzerik."

Bertsolaria hiru bertsoak osatu eta gero, bere eserlekura bueltatzen da. Ez daki bertsoak onak edo txarrak izan diren, baina galderari erantzun diola sinesten du: bere baitan eta oholtza gainean, askatasuna eta duintasuna garaile direla nabarmena baita.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

Konponbideak eskumenik ez omen duenean

EAEko auzitegi nagusiak Usurbilgo Udalak eraiki nahi duen konpostatze planta egitea galarazi du. Arrazoiak: eskumenik ez omen duela. Udalak horretarako eskumenak dituen ala ez eztabaidatzeak luze joko luke. Gu ez gara korapilo juridikoetan nahasten hasiko. Legeak eta herritarren ongizateak bat ez datozenean, dudarik ez daukagu legeak edota hauen interpretazioak direla aldatu beharrekoak eta ez alderantziz.

Zaborra, hau da, arazoa, ongarri bihurtuz konpontzeko bidea eraiki nahi denean bidea ixten zaio. Berriz zaborra, hau da, arazoa, errausketa bidez arazo handiagoa bihurtu nahi denean, ez dago eragozpenik noski, horretarako eskumenak daude-eta. Izorratzeko eskumena eta konpontzeko eskumenik eza daukan sistema batean bizi gara. Herritarren etxe ondo-ondoan erraustegia egin eta

Gipuzkoa osoko zaborrak erretzean sortutako dioxina, furano, metal astun eta gainerakoak irentsi arazteko eskumena dago. Guzti hori saihestu eta ingumena aberastuko duen konposta sortzeko berriz eskumenik ez.

Lehendik ikusi ez duenak garbi asko ikus dezake erraustegiaren gaiarekin, indarrean daukagun sare juridiko-politiko elite sozial baten interes partikularrak babesteko ehunduta dagoela. Interes horiek aurrera ateratzeko herritarren osasuna eta herritarren iritzia bost axola zaiela. Gutaz trufatzen dira erakundeetara gure arazoak azaltzera joaten garenean. Inoxente hauek! diote barrezka. Euskal hereneko legebiltzarrean errausketa gabeko zabor kudeaketa ezartzeko herritarren lege proposamena pikutara bidaltzeko ez dute lotsarik izan, nahiz eta 35.000 sinadurez babestuta egon, nahiz eta garrantzizko gaia dela

aitortzen duten. Orain EAEko auzitegi nagusiak gauza bera egin du. Zaborra konpostatzeko eskumenik ez dago, beraz dena erraustu eta on dagigula.

Etsita eta etxean isilik nahi gaituzte. Jauntxoei agintzen utzi eta gu beraiek telebistan jartzen dizkiguten programa aspergarri eta kutreei tonto aurpegiarekin begira nahi gaituzte. Ala ere, ez da hau etsipenean erortzeko unea, ez horixe. Herritarroi antolaketa, informazioa eta mobilizazioa geratzen zaizkigu. Jendilaje honentzako zerbait deserosorik baldin badago, hori jendea kalean kontra daukatela ikustea da. Urnietan erraustegia egin nahi izan zutenean ikusgarria zen herria nola zegoen. Bertatik pasa eta segituan sumatzen zen herria protestan zegoela. Erraustegiaren kontrako ikurrak etxe gehienetan zeuden bistan, jendea mobilizazioetan... Guri gauzak garbi adierazteko ordua iri-

Tentsioa nagusi

Joxe Domingo Aizpuruaren ongi etorrian

Senitarteko eta lagunen artean, etxean da Joxe Domingo Aizpurua. Iragan abenduaren 11n, bere urtebetetze egunean, Perpignaneko espetxean kartzela zigorra bete ostean, aske utzi zuten La Junquerako mugan (Girona, Herrialde Katalanak). Etxekoei goizean bertan deitu zien, aske utzi zutela esateko. Mugan bertan senideekin elkartu eta Usurbilerako bidea hartu zuten. Gaixotasun larri bati aurre egin behar izan dio espetxean.

Iluntzeko bederatzia pasata ailegatu zen Aizpurua Oxtapeko sarrerara. Ordurako zain zuen herritar andana. Inguruetan nabaria zen Ertzaintzaren presentzia. Ongi etorria egin zitzaion. Dantzariak agurra dantzatu, loreak jaso eta ekitaldia martxan zela, Ertzaintza bertaratu zen, ongi etorria bai baina omenaldirik ezin zitzaioela egin esanez. Tentsioa nagusitu zen eta hainbat bultzakada ere izan ziren. Bertsolariari ez zioten kantatzen utzi eta argazkilariei lana oztopatzen saiatu ziren.

Debekua eta bultzakadak

Oxtapetik kalejiran joan ziren Aitzaga aurrera. Ertzaintza une oro atzetik eta han ere ekitaldi oro debekatu zuen. Gero, Zendoiara jo zuten (han jaioa da Joxe Domingo Aizpurua) eta bertan ere tentsio uneak bizi izan ziren. Baina bertaratutako senide, lagun eta herritarren artean txaloak eta kankak nagusitu ziren. Hunkigarriak izan ziren baita Zendoia sarreran Aizpurua berak bota zituen bertsoak, une horretan ere, zigorra beteta izan eta aske egon arren, erzainez inguratua zegoela.



ASKE UTZI ZUTEN EGUN BEREAN, URTEBETETZE EGUNA ZUEN AIZPURUAK.



ONGI ETORRIA BAI BAINA OMENALDIRIK EZIN ZELA EGIN ESANEZ EKITALDIA ETEN ZUEN ERTZAINZAK.

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA



Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

Ezker Abertzalea, barne hausnarketa prozesu betean

Barne hausnarketa zabalik dago Ezker Abertzalean. Prozesu horren baitan, hiru herri batzar antolatu ditu, datorrena abenduaren 19an. Herritarrek duten zeresana azpimarratzen dute Ezker Abertzaleatik, ekitaldionan parte hartzeko gonbita luzatzearekin batera.

NOAUA! Zergatik abiatzen duzue barne eztabaida?

Agurtzane Solaberrieta. Azken hamarkadan, gatazkaren konponbiderako askatu beharreko korapiloak ondo baino hobeto kokatu dituen eztabaida politikoa ireki du ezker abertzaleak: gatazka konponduko bada, lurraldetasunaren eta autodeterminazioaren korapiloak askatu behar dira, ezinbestean. Eta, gainera, milaka pertsonen eta gizarte sektore askoren lanak eta borrorak aldaketa politikoaren atarira ekarri gaitu. Hala, zabaldu zen azken negoziazio prozesua Loiolan, baina prozesu hori amaituta, blokeo politikoa izan da nagusi, etsipena eta ilusio falta eremu abertzalean, eta ezker abertzaleatik blokeo egoera hausteko inizatibari heldu behar ziola ikusten genuen.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Independentziara iristeko lehen geltokiak marko demokratikoa izan behar du”

Gaur egun aldaketa politikoa gauzatzeko baldintzak badaude, baina baliatu behar ditugu, eta ezin ditugu usteltzen utzi. Gatazka politiko eta armatu hau gehiegi iraunarazten ari da, eta ezker abertzalearentzat lehentasuna gatazka konpontzea da. Iruditzen zaigu, guztion lehentasuna izan beharko lukeela gaur egun nagusi diren konfrontazio armatuak gainditzea. Gatazka honek eragiten dituen alde guztietako ondorio larriak gainditzeko. Eta konfrontazio armatu, blokeo eta itxaropen ezaren orde, elkarrizketa, akordioa eta Euskal



EZKER ABERTZALEA HAUSNARKETA PROZESUAN ARI DA ASTEOTAN.

Herriarentzat bake iraunkorra lortzea da helburua.

N. Zer da eztabaidara jarritako txostenean jasotzen dena?

A. S. Ezker abertzalearen erronka aldaketa politikoa gauzatea da, gaur egun zatiketan eta ukazioan oinarritua dagoen marko hau gainditzea eta Euskal Herrian, independentzia barne, proiektu politiko guztiak gauzagarri egingo lituzkeen eszenatoki demokratiko bat zabaltzea, euskal herritarren erabakitze eskubidean oinarrituta. Hori da helburua eta horretara iristeko ezker abertzaleak bide bat proposatzen du: prozesu demokratikoa. Prozesu hori garatzeko ezinbestekoa da independentziaren inguruan gehiengo demokratiko bat sortzea, indarrak metatuta, independentismoa jokaleku politikoaren erdigunean jar dezagun. Prozesu demokratiko horrek hainbat ezaugarri izan behar ditu, eta horiek ere jasotzen dira txostenean. Inolako indarkeriarik gabe eta kanpo injerentziarik gabe garatu behar litzateke, eta prozesuaren bermea edo prozesu ondo ateratzearen arrakasta herritarrek une oro ematen dioten atxikimendua eta babesa izango da. Prozesu horrek lanabes garrantzitsu bat izan behar du; elkarrizketa. Ezker abertzale-

ak bere borondate eta konpromiso osoa adierazten du, elkarrizketa horietan parte hartzeko. Are gehiago, duela hila-bete bat, Altsasun kaleratutako agiriaren bidez, prozesu honekiko konpromisoa berresteaz gainera, ezker abertzaleak bere gain hartu zituen hainbat konpromiso eta printzipio. Eta zergatik egin dugu urrats hori? Ikusten duguna da, gakoa ere badela, guk zer egiten dugun eta ez hainbeste besteek zer egiten duten.

N. Prozesu honetan, herritarrek badute zeresanik?

A. S. Hau guztia txosten batean jasoa dago, baina ezin dugu aurrera eraman ezker abertzaleko oinarri sozialak bat egiten ez badu. Ezker abertzaleak egingako apustu politikoa izugarria dela iruditzen zaigu, aurrera begirako etorkizuna baldintza dezakeen apustu batetaz hitz egiten ari gara. Eta apustu hori ahalik eta jende gehienarekin partekatu nahi dugu. Gaurko elkarrizketaren bidez guztiak gonbidatu nahi ditugu, etor daitezela herri batzarrerara.

Bigarren saioa, larunbatean

Eguna: abenduak 19, larunbata.

Ordua: 11:00.

Tokia: Sutegiko auditorioa.

Ostiral honetan Mikel Laboa plazan, Egunkariaren eta auzipetuen aldeko elkarretaratzea

Euskaldunon Egunkariaren eta auzipetuen aldeko lan talde bat dago martxan Usurbilen. Larunbat honetan Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia zabaldu dute baina, aurretik, elkarretaratzea deitu dute ostiral honetarako Mikel Laboa plazan.

“Ez zuen gertatu behar, baina 2003ko otsailean, Espainiako Auzitegi Nazionalak Euskaldunon Egunkaria itxi zuen, euskarazko egunkari bakarra, eta zuzendaritzako kide batzuk atxilotu zituen, Guardia Zibilaren txosten batean oinarrituta. Atxilotuetako batzuek Poliziaren eskuetan egon ziren bitartean torturatu egin zituztela salatu zuten”. Hala dio Usurbilgo sustengu taldeak bidali duen oharrak.

Fiskaltzak kasua behin betiko artxibatzeke eskatu zuen, akusazioek behar besteko oinarririk ez zeukatelakoan. Hala ere, Auzitegi Nazionalak, AVTren eta Dignidad y Justicia herri akusazioa aintzat hartuta, epaiketa egitea erabaki du, eta zazpi urteren buruan hasi da.

Idatzian aipatzen dutenez, “Euskaldunon Egunkaria ixtea eta zuzendaritzako kideak epaitzea arbuia behar dugula uste dugu. Horregatik, gertakari horiek salatzeke deia egiten

dugu. Gizarteari epaituko dituzten pertsonen elkartasuna adierazteke eskatzen diogu, baita auzibide honek eta beste batzuek zapaltzen dituzten eskubide demokratikoak defendatzeko ere, eskubide horien murrizketak guztioi eragiten baitigu”.

Egun hauetan, idatzi honekin bat egiteko kanpaina jarri dute martxan: “talde eta pertsona guztiei eskatzen diegu adierazpen honekiko atxikimendua adierazteke eta berau zabaltzeko, auzi honetan izan den askatasun murrizketa salatzearen egingo diren kanpainen eta ekintzetan parte hartuz. Horrez gainera, auzipetuei elkartasuna adierazteke deia egiten diegu”.

Bilborako autobusak

Ostiral honetan, abenduak 18, Mikel Laboa plazan elkarretaratzea deitu dute arratsaldeko 20:00etan, auzia salatzeke.

Eta abenduaren 19an larunbata, arratsaldeko 17:00etan manifestazio nazionala izango da Bilbon. Horretarako autobusak jarriko dira Usurbildik. Apuntatzeko ohiko tabernetan izango da aukera: Txiriboga, Txirristra, Bordatxo eta Artzabalen.

Besteak beste, atxekimendu hauek jaso dira Usurbilen:

Alkartasuna kooperatiba, Andatza Mendi Elkartea, Aralar, Ezker



**BILBORA AUTOBUSEAN JOATEKO
IZENA EMAN BEHAR DA TXIRIBOGA,
TXIRRISTRA, BORDATXO EDO
ARTZABALEN.**

Abertzalea, Usurbil Kirol Elkartea, Etxerat, Aitzaga Elkartea, Noaua!, Mendeku Itxua, Usurbil Bizirik, Zubieta Lantzen, DJ Larra, Juanjo Allur (soziologoa), Joxe Mari Izeta, Jakoba Errekondo, Garikoitz Udabe (kazetaria), Josu Aranberri (kazetaria), Agurtzane Solaberrieta (kazetaria), Iñaki Errasti (arraunlaria), Alex Udabe (arraunlaria).

Karlos Martin eta Joan Mari Torrealdairen aurkako epaiketak artxibatzea eskatu du Udalbatzak

Karlos Martin eta Joan Mari Torrealdai herritarren aurkako epaiketak abian diren honetan, mozioa onartu zuen udalbatzak, igaro den abenduaren 9an burutu zuen ezohiko osoko bilkuran. Bertan, Martin eta Torrealdairen aurkako epaiketak bertan

behera utzi eta artxibatzea eskatzen da. Bi herritarren eskubideak eta bereziki, euren errugabetasun printzipioa errespetatuak izatea ere galdegiten da, Entzutegi Nazionala bezalako epaitegi bereziek desagertu behar dutela adieraztearekin batera. Gobernu taldeak eta Aralarrek

babestu zuten testua. EAJ-PNV-ko zinegotziak abstentziora jo zuen.

PSE-EE-ko eta Alkarbidetako ordezkariak mozioaren aurka bozkatu zuten. Azken udal talde honek osoko bi zuzenketa aurkeztu zituen ezohiko osoko bilkuran.

Mendeku itXua, Bilborock lehiaketako finalean

Bilborock Bilbao Hiria pop rock lehiaketako finalerako sailkatu da Mendeku itXua taldea. Metal saileko finala jokatu dute aste honetan, Akatu eta Rise to Fall taldeekin batera. Albistea jakin eta berehala, usurbildar musika talde gazte hau pozarren azaldu zen. Abenduaren 16an jokatu beharreko finalera azaltzeko deia luzatu zieten lagun zein zaletuei.

Finala Bilborock aretoan jokatzekoa zen abenduaren 16an (ale honen edizioa ixterakoan, finaleko emaitzaren berririk ez genuen).



USURBILGO MUSIKA TALDEA POZARRREN DA FINALERA IRISTEAGATIK.

Txistor eta gaztain jana Santuenean

Santuenea Kultur Elkartek hainbat ekitaldi antolatu ditu eguberri hauetarako. Hasteko, Santo Tomas eguneko ospakizuna. Santuenean, abenduaren 18an ostirala egingo da, txistor eta gaztain jana, Ibaiondo elkartearen aurrealdean. 19:30ak aldera hasiko da.

Txistor janaren aurretik, arratsaldeko 18:30ean, antzerki txiki bat eskainiko dute haurrentzat antzerki tailerrean ibili diren gaztetxoek, Santuenea elkartearen lokalean.

Tarte batean, gabonetako saskiaren zozketa egingo da, elkartearen kide diren artean. Larra Dj-ak alaituko du Santo Tomaseko festatxoak.

Olentzerorekin kalejira

Azkenik, abenduaren 24an, arratsaldeko 18:00etan aterako dira Santuenean, Olentzerorekin kalejiran.

Erle Eguneko argazkiak eskuratzeko aukera dago

Erle Egunean, hainbat argazki aterata ziren goizean zehar eta guztiak Erle Eguneko antolatzaileen eskuetan daude. Jende asko galdezka ari da, ea argazki horiek non eskura daitezkeen.

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, "Erle Egunean ateratako argazkiak norbaitek ikusi nahi baditu, jarri dadila kontaktuan Julianekin, honako telefono zenbakira deitu: 696 594 094".



Errefusaren eta hondakin organikoen biltzeta kopuruak, gora

Urriko datuekin alderatuta, igo egin ziren hondakin organiko eta errefusaren kopuruak. Atez ateko webgunean aipatzen denez, "urrian 29,47 tona organiko eraman zituen Usurbilek eta azaroan 43,6 tona. Errefusari dagokionez, 31,57 tona bildu zituen urrian eta hurrengo hilabetean 54,59 tona".

Ontzi arinei dagokionean, ordea, beheranzko joera eman da. Urrian 12,78 tona jasotzetik, azaroan 11,96 tona biltzera igaro da.

Papera eta kartoiari dagokionez, ia zifra berdinetan mugitu dira urrian zein azaroan. Urteko hamargarren hilabetean 19,56 tona jaso ziren eta azaroan 19,4 tona.



**Usurbil
Autoak, S.C.L.**
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitzearra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegin - Gozategia

LABE-GOXO

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Olentzero eta bere lagunak, eguberriak iragartzen hasi dira auzoz auzo

Lore eta Ikatz, Mari Domingi, baita Olentzero bera ere, batetik bestera dabilta egunotan eguberriak ate joka ditugula iragartzen. Aginagako ludotekan egon ondoren, astelehenean abenduak 14, Kalezarko Haur Eskola bisitatu zuten.

Gabon kantak abestu edota Olentzero eta Mari Domingiren etorrera gertutik ikusi ahal izan zuten bertaratu ziren haur eta gurasoek. Jatekoa banatzeaz gain, haurrek idatzitako lehen gutunak jaso zituzten. Olentzerok mezu bikoitza helarazi zien hurrei, ondo pasatzeaz gain, gurasoen esana entzutea.

Ekitaldi berean iragarri zutenek, Sutegin abenduaren 23an 17:30ean festa handia burutuko dute eta bertan parte hartzeko gonbita luzatu zuten.



KALEZARREN, HAUR ESKOLAN IZAN ZIREN AURREKO ASTELEHENEAN LORE ETA IKATZ, OLENTZERO ETA MARI DOMINGI.

Seaskako egutegiak

Udarregin salgai

Seaskako egutegiak Setxe askotan daude. 2010ekoak eskuratzeko aukera dago egun hauetan Udarregi ikastolan. Webgunearen bidez gurasoei igorritako albisteak dioenez, "jakinarazi nahi dizuegu Iparraldeko ikastolek urtero plazaratzen duten Seaskako egutegia salgai dagoela Udarregi ikastolan. Behar baduzue, pasa mesedez idazkaritzatik. Ale bakoitzak 4 euro balio ditu."



Truke azoka



JOSTAILU AZOKA MODUKOA ANTOLATU ZUEN HITZ AHOK AURREKO ASTEBURUAN. TRUKEA ETA BERRERABILPENA SUSTATZEKO MODU POLITA.

Informatika musikaleko ikastaroa antolatu dute Zumarte Musika Eskolan

Zumartek indartsu ekin dio 25. urteurrenari. Atzera begira baino, aurrera begira daude eta horregatik informatika eta musika lotzen dituen ikastaroa antolatu dute. Urtarrilaren 12an hasiko da eta bi hilabetez luzatuko da. Izena emateko epea irekita dago baina, adi, plazak mugatuak izango dira. Hori bai, musika hizkuntzari dagokionez, gutxieneko ezagutza bat izan behar da.

Landuko diren gaiak

- Partituren edizioa (Finale).
- Akonpainamenduak (Band in a Box).
- MIDIak sortzea eta karaokeak egitea (Sonar).
- Audio edizioa (Sound Forge): Wav eta Mp3 formatuak. Manipulazioa: moztu/itsatsi, fade in eta out, nahasketak... Efektuak: bolumena, tonu aldaketa.
- Audio karaokeak (Karafun).
- Grabaketak (Sonar).



IZENA EMATEKO EPEA ABENDUAREN 18AN AMAITUKO DA.

Izen-ematea zabalik

Abenduaren 18an amaituko da ikastaro honetan izena emateko epea. Zumarteko bulegoan, astearte, ostegun eta ostiraletan, honako ordutegian: 17:30-19:30 bitarte.

Klaseak, astearte arratsaldez

50 eur oko ordainketa egin behar da izena ematerakoan. Ikastaroa urtarrilaren 12an hasi eta martxoaren 23an amaituko da. Klaseak, asteartero izango dira, 18:30-20:00.

Gazte Abesbatza, Errenterian kantari

Errenteriako Ereintza Elkarteak Gabon Abesti Sariketa antolatu du urtero. Aurtengoa 63. edizioa izango da eta abenduaren 26an ospatuko da. Lehiaketa honetan, Zumarte Musika Eskola ordezkaturiko du Zumarte Gazte Abesbatzak.

Abenduaren 26an

Abesbatza honetan, gaur egungo ikasleak biltzen dira eta baita ikasle izandako hainbat kantari ere. Abesbatza herrikoien kategorian parte hartuko dute Zumartekoek. Sariketa ezagun hau arratsaldeko 18:30ean hasiko da, Errenteriako kiroledegian.

Arrasate Hiria lehiaketa sarituak

Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa ospatu berri da. Lehiaketa arrakastatsu honetan, Zumarteko hiru ikasle hartu dute parte: Imanol Iribar Rodriguez, Itsaso Orbegozo Borda eta Nerea Zaldia Cernudak. Hirurek zilarrezko domina lortu zuten. Zorionak!



ZUMARTEKO IKASLEEK ZILARREZKO DOMINA ESKURATU ZUTEN ARRASATEN.

Urteurrenari, logotipo berria



Urteurrenaren harira, logotipo lehiaketa jarri zen martxan, Zumarteko ikasleen artean. 18 lan aurkeztu ziren baina Oihana Arsuagaren lana izan zen irabazlea.

Elkarteen Arteko Mus Txapelketaren finala larunbat honetan jokatu da

Azkeneko urteetan bezala, aurten ere mus txapelketa batek lotu ditu herriko bederatzi elkarteak. Urtez urte ekimena antolatzeko ardura elkarten artean txandatzeko dute eta, hamabigarreneko xehetasunak lotzeaz Mahaspildegiko elkarteak arduratu da. Kanporaketak argitu dira eta finala larunbat honetan jokatu da.

Lehen fasea elkarte bereko bazkideen artean jokatu zen eta elkarte bakoitzean bi bikote onenek final handirako txartela eskuratu zuten. Finala, larunbat honetan jokatu da, abenduak 19, Mahaspildegiko elkarteak, 16:30etik aurrera. Hauek dira azken norgehiagokara ailegatu direnak:

EGUZKI: Agustin Calvo-Narciso Lopez eta Antonio Lozano-Gabriel Sanchez.

ERROIZPE: Jon Lopez-Mikel Castresana eta Mirotz Arrospide-Arkaitz Lizeaga.

MAHASPILDEGI: JM Lertxundi-Koldo Lertxundi eta Alfonso Vidal-Igor Alkorta.

PEÑA PAGOLA: Justo Pulido-Xabier Soroa eta Aurelio Amo-Julian Arias.



ARGAZKIAN, DUELA BI URTEKO FINALEAN SARITUTAKOAK.

IBAI ONDO: Enrike Uli-Estebez eta Roman Zulaika-Koldo Zulaika.

AGINAGA: Ane Mancisidor-Imanol Esnaola eta Ramon Pikabea-Miguel Angel Bereziartua.

YOKO GARBI: Ramon Iparragirre - Angel Iparragirre eta Enero Izagirre - Imanol Aizpurua.

ANDATZPE: Ibarreta-Borda eta Sarasola-Zumeta.

AITZAGA: Arkaitz Portularrume-Xabier Orbegoza eta Markel Olaizola - Iñaki Errekondo.

Babesle ugari

Bestalde, Elkartea Arteko Mus Txapelketako antolatzaileek txapelketa honetan lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete. Hona hemen nabarmendu nahi dituzten laguntzaile eta babesleak: Saltxipi, Atxega, Txitxardin Beltz, Olarrondo, Aginaga, Aialde Berri, Antxeta, Araeta, Bordatxo, Maykar, Patri, Saizar, Sekaña, Urdaira, Barazar, Alamandegiko, Txiki Erdi, Irigoien eta Iruin.

Ederra saioa

Aurreko astean, Oskar Estanga abeslari nafarra eta Duo Jade kantari kubatarrak Sutegin aritu ziren. Kubatarrak Pirritx eta Porrotxen bitartez etorri dira Euskal Herrira. Pailazoan azken diskoan hartu dute parte. Porrotzek, Sutegiko saio hasieran, Usurbilgo Udalaren laguntza eskertu nahi izan zuen. Udalaren eskaerari esker lortu zutelako Duo Jadekoek Euskal Herrira etortzeko baimena.



EMANALDIA HASI AURRETIK, DUO JADE, OSKAR ESTANGA ETA JOXE MARI AGIRRETXE.

Maider Izagirre diseinugileak denda ireki du Donostiako Bretxan

Hitzordu bereziren bat izan edota eguberri hauetan gutizia bat oparitu nahi duenak, arropari dagokionean, Maider Izagirre diseinugile gazteak zabaldu berri duen Bretxako dendara jo dezake. Usurbildarrak sortutako arropa ezagutu eta erosteko aukera dago Donostiako merkatal gunean. Bete berri duen ametsaz gozatzan ari dela dio Maiderrekin.

NOAUA! Aukera nondik sortzen da? Maider Izagirre. Laguntza moduan, diseinugile gazteoi Donostiako Bretxan itxita dauden lokalak irekitzeko aukera ematen digute. Hortik hasi zen guztia.

N. Noiztik zaude Bretxan?

M. I. Uda partetik, Bretxako goiko solairuan. Hasieran beste diseinugile batzuekin partekatu nuen lokala. Egun, bakarrik nabil. Gustura nabil, ia mar-txan jartzen garen.

N. Zure hasiera nolakoa izan da?

M. I. Esaldi batean laburbilduko dut; gustuko bidean, aldaparik ez. Krisi ego-
era dago, egoera zaila da. Halere, nahia-
go dut gustuko dudana egin eta horre-
tan saiatu. Ez dakit aurrera aterako den,
baina gozatzan ari naiz. Ilusio eta gogo
handiarekin nabil, eta hori da garrantzi-
tsuena.

**N. Produktuen izaerarekin bat dator,
dendaren izena?**

M. I. Maider Alzaga izeneko produk-
tu marka sortu dut.

**N. Zer motatako arropa sortzen
duzu eta zure eskaintza nori zuzendua
dago?**

M. I. Prestatu dudana lehen bilduma,
ezkontzetarako izan da, dotorezia pun-
tuarekin. Asteburuetarako aproposa,
egunerokotasunerako ez. Oraingoz
atera dudana linea hori litzateke. Zortea



GUSTUKO DUEN OFIZIOAN BIDEA ZABALDU NAHI DU USURBILGO DISEINUGILEAK.

dugu, Bretxan amaierako bezeroak badakigu zer eskatzen duen. Pista asko ematen dituzte eta konturatu naizenez, probatzeko gogoia dago. Jendeak produktu bat erosi nahi du, baina nik eskaintzen dudana produktua puntuala da. Ezkontzaren bat izaten denean, normalean preziorik galdetu gabe jendea erostera doa.

N. Nola definituko zenuke zure estila?

M. I. Euskal diseinugile bezala, tirada gutxikoa, estilo pertsonalduna, gozoa-
goa.

N. Eskaintza zabaldu nahi zenuke?

M. I. Merkatuarekin asmatu. Probatzen, jolasten ari naiz, eskatzen didatena eskainiz. Aldi berean gozatzan, barruak eskatzen didana egiten nabil. Orain, beste bilduma berri bat ari naiz prestatzen; pixkanaka algodoiekin, kamisetak... Kalerako. Niretzat errazagoa izango da jendeak probatzea, eta errazagoa, bezeroek neure arropa janzteko aukera izatea. Hasiera batean, ez nuen nahi, nolabaiteko prestigioa mantentzeko. Baina prestigioak jaten ematen ez badu, azkenean, krisira eta denera moldatu beharra duzu. Pauso hauek

emanda hasi naiz, halere, ez dakit zerrekin bukatuko dudana. Azkenean bezeroari eskatzen duena emango diot.

“Tendentziek denbora laburra dute”

N. Negua gainean dugu. Garai honetarako bilduma sortu beharko bazenu, zer bururatuko litzazuke?

M. I. Sorbaldakoak eta beroki borobilak aurtengorako, hurrengo urtean jada ez luke balioko. Gainera, proiektu bat dut horrekin ekoizteko, baina ez dakit egin edo ez. Oso gustukoa dut, badakit Bartzelona inguruetan oso gustukoa izango luketela, baina hemen inguruan ez dakit ulertuko ote den.

N. Joerak zeharo eta segituan aldatzen dira. Denboraldika antolatzen dituzu bildumak?

M. I. Tendentziak pasatzen doaz, oso denbora laburra dute. Hasi berria naiz, baina ez dit tentatzen denboraldiak jarraitze hori. Orain are gehiago, Bretxan denda aukera izanda, askatasuna dut.

“Nire ustez, diseinugile onenak hemengoak dira”

NOAUA! Sortze lanean aritzen zarenean, modari begiratzea derrigorrezkoa zaizu. Zer izaten duzu kontuan?

Maider Izagirre. Bilduma berri bat sortzerakoan, hasieratik kontzeptu bat behar da. Hortik hasten zara inspiratzen. Estilo bat hartu behar duzu. Esfortzurik ez dut egiten, nahi gabe diseinugile bakoitzak bere estiloa du, bestela ez luke graziaz izango. Jendea kaletik joan eta arropa hori inoiz ikusi gabe, zurea dela jakitea litzateke idealena, zure estiloa kaptatzea. Ia jendeak ulertzen duen neure estiloa, kontzeptua.

N. Asmoetako bat denda bat irekitzea zen. Proiektu hura errealitatean bihurtzea, ustekabe galanta, ezta?

M. I. Ez nuen pentsatu ere egiten. Duela hiru urte esaten didazu, sinatzeko zure izenarekin denda izango duzula Bretxan, eta nahi bai, baina ezingo nuke sinistu. Hasten ari naiz, inbertsio handia da eta dena bueltatu eta irabaziak behar dira. Ilusioa dut, gogotsu nago, oraindik gazte sentitzen naiz honi aurre egiteko. Baina ezin dut esan hau lortu dut eta neurea da. Eera berean ordea, hori da politena, borrokatu beharra izatea.

MAIDER IZAGIRRE

“Gaudira joan eta gehientsuenak euskaldunak dira. Euskaldunok, dohain berezi bat dugu”

N. Erronka handia beraz?

M. I. Bai. Egoera horrek zaildu egiten du eta batzuetan erre egiten zaitu, baina



MAIDER IZAGIRRE, BERE DISEINUETAKO BAT ESKUETAN DUELA.

bere bizitzeko gogoia ematen du. Beste askatasun eta ardura eta beldur batzuk ditut. Edozer gertatuta ere, behintzat gozatu, ikasi eta bizitza pertsonal zein profesionalean, asko irakatsiko dit.

N. Euskaldunak eta moda sarri ez omen doaz bat...

M. I. Nire ustez, diseinugile onenak hemengoak dira. Gaudira joan eta gehientsuenak euskaldunak dira. Euskaldunok, dohain berezi bat dugu. Moda gustuko dugunongan halere, inguruak eragina izan dezake. Bartzelonan janzten nuena, hemen ez dut erabiltzen.

N. Urteetan ika-mika ugari sortu dira, tailen inguruan.

M. I. Diseinugile aberats askoren txorakeriak dira horiek. 38ko taila egitea

oso erraza, erosoagoa da. Zailena 46, 48, 50, 52koa egitea da. Diseinugile ona bazara, beldurrik ez duzu izan behar. Emakume guztiok dugu zerbait erakusteko eta zerbait tapatzeko. Egin behar dena da emakumea begiratu, bere alde polita erakutsi eta itsusia tapatu.

“Hau nire ametaa da”

N. Ametsa beteta, aurrera begira zer egin nahi zenuke?

M. I. Aukeran nahiago dut horretan ez pentsatzea. Hau nire ametsa da, momentukoa bizi eta oraingoz, gozatu dezaket. Betirako bada hobeto, baina badaezpada momentua bizi nahi nuke, ametsa bukatzen bada ere, egoera oso zaila baita aspektu guztietan. Unea gozatu, eta biharko egunean probatu nuela esan nahi nuke. Eta ez, “probatu izan banu...”.

teilatuar eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**


KALITATEKO
EUSKAL OKELA

ALKORTA
AUTOZERBITZUA

Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak

Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Hitz gezidunei jarraituz...

		* Irudiko zuhaitza	▼	Gurdiaren hotsa	▼	Hala bedi!	▼	Bere ..., bere baitan	▼	Kolpeak
		Izar txikiak		Hegazti mota		Euskal fonema		Ganbela, aska		
		▶		▼		▼		▼		
		Harrapatua	▶							
		Ospea								
Bizkaiko ibaia	▼	Pl., ahoko haragia	▶	▼		Erreka	▶			
Gramatikari dagozkio		Arabako				Paper lodi				
▶		▼				▼				
Nahastura trinko	▶			Junta-gailua	▶			Emakume izena	▶	
Omangoak				...-dale, jo eta su				Larru		
▶				▼				▼	Potasioa	▶
									Suari dariona	
Erreka handi	▶				Duela 24 orduko	▶				▼
Baroi ezaguna					Zilarra					
▶			Dolarea	▶	▼				Bizkaiko herria	▶
			Oxigenoa						Urania	
Oroigarriak	▶		▼					▼		

* Hostoa zein zuhaitzetakoa den ba al dakizu?

SOLUZIOA: 17 orrialdean.

Igande honetan, Buruntzaldeko Pilota Eguna

Buruntzaldeko II Pilota Eguna ospatuko da igande honetan. Goizez, Buruntzaldeko sei herrietan (Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbil) maila gutzietako adiskidantzazko partidak jokatu dira. Aginagan nagusi mailako partidak izango dira goizez.

Arratsaldez, 16:00etan hasita, Urnietako pilotalekuan sei herri hauen arteko txapelketaren finalak jokatu dira. Finalera iritsi direnak Hernani eta Usurbil izan dira.

Usurbildik ordezkari hauek

Benjaminetan: Imanol Galarraga, Aitor Aranguren.

Alebinetan: Antton Errekondo, Xabat Beloki.

Infantiletan: Aitor Gaztañaga, Aitor Olaetxea.

Kadetetan: Iñigo Ibargoiien, Imanol Rebollo.

Jubeniletan: Xabier Santxo, Markel Galarraga.

Nagusietan: Xabier Errasti, Julen Urruzola.

Abenduak 19 larunbata

11:30ean Usurbilen, Gipuzkoako Elkarte Arteko Finalak jokatu dira.

Eskuz binaka kadete 3.maila

HERNANI-OIARPE

Eskuz binaka nagusiak 3.maila

HERNANI-USURBIL

(Unai Ezeiza - Eñaut Esnaola)

(Enrike Huizi - Jon Olaizola)

Bestalde, Ibon Aranalde eskuz banaka nagusietan finalera iritsi da. Oiartzunen jokatu du.

Mendi aseguruia egiteko garaia da

Mendi aseguruia egin edo berritu nahi duenak, orain du garaia. Andatza Mendi Elkartearen egoitzan dago horretarako aukera. Ez da mendi taldearekin lotutako albiste bakarra. Asteburu honetan ospatuko dute Mendi Astea. Larunbat honetan, urteko bazkaria egingo dute, Aizkorrira igo eta gero.

Mendi aseguruari buruzko xehetasun denak Andatzak DYA eta Udaletxe ondoan duen egoitzan jaso daitezke. Abenduaren 15ean hasi ziren mendi aseguruia egiten. Eta abenduaren 22an eta 23an ere, aseguruia egiteko aukera izango da Andatzaren egoitzan bertan. Abenduaren 17an ere, Mendi Asteko ekitaldien baitan, Sutegin berritu ahal izango da aseguruia. Ordu-tegi honetan, 19:00etatik 21:00etara (abenduaren 22an eta 23an ere, Andatzaren egoitzan, 19:00etatik 21:00etara).

Bazkideen kuota

Bestetik, aurten bazkideen kuota 10 eurokoa izango da. Andatza elkartearekin kontaktuan jartzeko, hauek telefono zenbakiak: 667 435 612 / 653 722 985.

E-maila, aldiz: andatza@hotmail.com



ANDATZAKOAK AIZKORRIRA ABIATUKO DIRA LARUNBATEAN.

MENDI ASTEA 2009

ABENDUAK 17 OSTEGUNA

“Gasherbrun I” (Oskar Porrás). 19:00etatik aurrera.

ABENDUAK 19 LARUNBATA

Helduen mendi ibilaldia, Aizkorrira igoera. Ondoren, babarrun jana (Seguran edo Zegaman). Izena emateko azken eguna, abenduak 17an osteguna, Sutegin 19:00etatik 21:00etara.

ABENDUAK 20 IGANDEA

Umeen ibilaldia (zehaztasun gehiago ez genuen ale honen edizioa ixterakoan).

2. Trindoor Txapelketako finalerdia, larunbatean

Iñaki Añorga, Alex Udabe eta Mikel Otaegi herritarrek Euskadi Irratiko Hiru Erregeen Mahaia kirol saioak antolatzen duen 2.Trindoor Txapelketako finalerdia jokatu dute larunbat honetan, abenduak 19. Oñati gaindituta, aurrez aurre Villabonako taldea izango dute. Usurbildarrek finalerdia sailkatzea lortu zuten azaroaren 21ean, gasteiztarren aurkako neurketan. Izen handiko kirolariak mendean hartu eta haiena baino emaitza hobek lortu zituzten. Ez baita ahaztu behar aurrez aurre, Martin Fiz

korrika, Joseba Beloki txirrinduan eta Joserra Urbina arraunean aritu zirela.

Egun hartako ahalegina errepikatu beharko dute larunbat honetan ere; Añorga bi kilometro arituko da korrikan, Udabe kilometro bat arraunean eta Otaegi bost kilometro bizikleta gainean. Lehia saioa, EITBk Donostiako Miramonen duen estudioetan burutuko da. Euskadi Irratiak zuzenean eskainiko du, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Final handia abenduaren 26an jokatuko da.



USURBILGOEK VILLABONAKOEN AURKA LEHIATU BEHARKO DUTE.

Agenda !!

Abenduak 19 larunbata
- Pirritx eta Porrotx kiroldegian.
16:00etan eta 18:30ean.
- Sutagarren kontzertua Aginagako Eliza Zaharrean. 23:00.

Abenduak 20 igandea
Santo Tomas Azoka, goizean zehar babarrun eta sagardo lehiaketa. Sagardo dastaketa, taloa salgai...

Abenduak 22 asteartea
- "Ametsen museoa", haurrentzat antzerkia Sutegin. 17:00etan Sutegin.
- Zumarteko abesbatzen kalejira. 18:30ean, Zumartetik irtengo dira.

Abenduak 26 larunbata
- San Esteban Txiki Eguna, 11:00etan Urdaiaiga auzoan.

Eguneko goardiako farmaziak

Abenduak 17, osteguna
Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Abenduak 18, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Abenduak 19, larunbata
Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Abenduak 20, igandea
Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Abenduak 21, astelehena
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Abenduak 22, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 23, asteazkena
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Abenduak 24, osteguna
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Abenduak 25, ostirala
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Abenduak 26, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Abenduak 27, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Castilla Farmazia (22:00-09:00),
Urbietea kalea, 7 Hernani (943 552 941)

*Usurbilen, soilik eguerdina arte

Kontsumo Kooperatiba ahalik eta zabalena osatu nahi da

Herriko ekoizpena bultzatzeko Kontsumo Kooperatiba sortzeko asmoa du Udalak, baina herritarrekin batera gauzatu nahi du egitasmoa. Gaiari buruzko zenbait bilkura burutu dira jada, baina ez dira azkenak izango. Bertako abeltzain eta nekazariari zuzendutako bi bilera ireki antolatu ditu Udalak, datorren aste hasierarako.

Abenduaren 22an abeltzaintza ekologikari buruz jardungo du Sara Lordak, Biolurreko abeltzaintza teknikariak 18:00etatik aurrera. Eta hilaren 23an, nekazaritza ekologikoa ahotan hartuko du, Leire Ibarretxe teknikariak, 17:00etik aurrera. Argibideak, eta galde-erantzunen tartea ere izango da. Bi bilkura irekiak Artzabal zahar egoitzako aretoan burutuko dira.



DUELA ASTE BATZUK HASI ZIREN KOOPERATIBA OSATZE-LANETAN.

Abenduak 22, asteartea

18:00 Kontsumo kooperatiba, bilera irekia Artzabalen. Gaia: abeltzaintza ekologikoa. Hizlaria: Sara Lorda, Biolurreko abeltzaintza teknikaria.

Abenduak 23, asteazkena

17:00 Kontsumo kooperatiba, bilera irekia Artzabalen. Gaia: baratzezaintza eta frutazaintza ekologikoa. Hizlaria: Leire Ibarretxe, teknikaria.

Internet ikastaroa KzGunean

KzGunean teknologia berriekin lotutako ikastaroak eskaintzen dira. KzGunea, gainera, Internet erabiltzen ikasteko eta nabigatzeko behar diren instalazioez hornituta dago. Honi lotuta, Interneti buruzko ikastaro bat eskainiko da urtarrilaren 10etik 22ra

bitartean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 11:00etara.

Abenduan, arratsaldean dago zabalik KzGunea, 16:00-20:00. Urtarrilean, ordea, goizetik, 9:00-13:00.

Telefonoa: 943 36 14 12.

tutor.usurbil@kzgunea.net
www.kzgunea.net

Soluzioa !!

		I		T		O		K			
		I	Z	A	R	T	X	O	A	K	
			E	H	I	Z	A	T	U	A	
	O		O	I	A	K		L	A	T	S
G	R	A	M	A	T	I	K	A	L	A	K
	O	R	E		E	T	A		A	N	A
O	M	A	N	D	A	R	R	A	K		K
	I	B	A	I		A	T	Z	O	K	O
O	Ñ	A		L	A	K	O	A		E	A
	O	R	O	I	G	A	I	L	U	A	K

Bihurri Txiki ludotekako

bazkideen bilera, 22an

A benduaren 22an asteartea, 19:00etan, Bihurri Txiki ludotekako bazkideen bilera egingo da (lehen zahar egoitza zegoen tokian dago ludoteka). Datorren urteko gestioaz hitz egingo da. Bestalde, abenduaren 29an bazkideen arteko merienda egingo da arratsaldeko 17:00etan, ludotekan bertan.

ETXEBIZITZA

- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 Kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukalde, komuna eta portxea. 675702428 (gautan).
- Atxegaldeko Erdiko Kalean 81 metro karratuko etxea salgai. Erreformatu, prezioa 47 milioi pezeta. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Logela bat alokatzen da etxe konpartitu batean. Pisu berria da eta Usurbil kaxkoan kokatuta dago. 610 319 405.
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetarako egiteko aukera asko. 135.500 euro. 671417240.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- "Gas Gas" 321txt trialeko moto bat salgai. Oso egoera onean. 1000 euro. 607233255.
- Beheto Kale Atxegalden lokal bat daukagu salgai. Interesatuak deitu 645736726 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean.

- 646514494
- Mendiko terenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotoaktuera. 943361265.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabilo bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajeon, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-estakarak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-estakintzak

- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Esperientzia duen neska bat behar da goizez etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 687055166.
- Emakume bat (paperak ditu) eskaintzen da pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. 618128461 / 943575788.
- Mutil gazte bat eskaintzen da erakuntza lanak, garbiketak eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketara lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.

- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatu nuke Usurbil edo inguruan. 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aukiak, mahaia, kafe-makina,.... 607 389 570 (Mireia).
E-posta: istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari liriko. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaiaberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925

Zorionak Maitane!

10 urte bete dituzu eta zure koadrilako lagunenez partez, zorionak eta ondo pasat!



Zorionak Eider!!

Ez gara ahaztu. Zorionak eta txokolatzeko muxuak zure urtebetetze egunean guraso eta Unairen partez.



Zorionak Haitz

Abenduaren 13an egin dituzu urteak eta etxeko guztien partez muxu haundi bat eta zorionak!!



Zorionak Xuban!

Abenduaren 4an egin zenuen 11 urte eta ez gara utaz ahaztu. Berandu bada ere zorionak eta muxu haundi bat gurasoan eta Ekhiñeren partez!!



Azaroaren 22an gure etxeko erregetxoak urteak beteko ditut, eta "Elur, zenbat gailleta postreerako?" galdetzen diogunean, baietz esan: "Bost, bost urte ditut eta".



Zorionak Goiatz!!!

3 urte bete dituzu abenduaren 9an. Sorgintxo bat egina zaude, muxu asko etxekoen partez



JAIOTZAK

- Unax Zuloaga Azpillaga, azaroak 19.
- Oihan Matxain Vizoso, azaroak 25.
- Anje Larburu Kaperotxipi, azaroak 25.
- Alai Lopetegui Estevez, azaroak 28.
- Saira Maestro Cotrina, abenduak 1.

HILDAKOAK

Joxepa Olasagasti Bengoetxea 84 urterekin hil zen abenduaren 3an





Zorionak eta
urte berri on!

Gabon hauetan har ezazu parte
"Fruta zesto eder baten zozketan"
zure erosketako tiketarekin

Zozketa: abenduaren 23an (Fruta-dendan)


Salmentan ere baditugu
zestoak,
Informa zaitez!



I:CODE
BY IKKS

MAHUKA
arropa denda

etxebeste 3 ☎ 943 361 106



irudiari daukan
garrantzia ematen diogu

diseinu grafikoa.publizitatea
posterrak/flyer-ak.display-ak.enpresa opariak
packaging-a.web orriak...



HEREXA DISEINUGINTZA

www.herexa.com 943 243 619 670 593 312

Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



Babarrun eta
sagardo **lehiaketa**

Abenduaren
igande goizez **20an**



Usurbilgo Urtala

USURBILGO
SAGARDO
EGUNAREN
LAGUNAK

Noaua!!

www.noaua.com